

EUSKARAZKO IRAKASKUNTZA BIZKAIAN:
ARAZOAK ETA ZENBATT PROPOSAMEN

(Jesus Maria Agirre, Iñaki EguzkiZa',
Itziar Idiazabal, Luis Maria Larrigan, Bilbo 1985)

Bizkaicraren (Bizkaiko cuskercaren) egocrea ain larria izan-
nez, nozik bein bere aldcko agcrpen bat cdo bcstc ikustcn dogu.
Gure erriarentzat ain garrantzitsu ta minkorra izan bear leuken
arazoan, gitxi be gitxi dira olako agerpenak. Bai, badakigu, idaz-
ki-agerpen ondoan, eguneroko lana dago, bizkaicraren aldcko
ekintza. Izan be, erakunde batzuk lancan diardue (al dabentxua
egiten), bcstc erakunde batzuk, politikoak eta kulturalak, czcr
gitxi, edo ezerez, egiten dabela.

Oraingo agcrpen au Dcrioko Irakaslc Eskolak argitaratu
dau. Bizkaiera dau gaia, batcz be (izenak diiioan lcz) irakaskin-
tzeari begira. Baina bere oinarrizko idcak eskolatik kanpora be
bardin balio dabe, egillcak curak be aipatzen daben lcz.

Izkuntza bitan dator: erderaz eta batuaz. Olako izkuntza
biko idazkietan sarriegi jazotcn dan lez, crderazkoa argiago,
errezago eta atseginago idatzita. Idazki laburra da (47 orrialdc iz-
kuntza bien artean) eta bizkaieraren egoerea, linguistika crra-
zoiak eta urtenbide «proposamenak» ia aipatu egiten dira baka-
rrik Egilleak badakie gauzok sakonago ikertu, zeaztu lcitekezala
Olan be, dinoena naiko da arazoa ulertzeko eta ekintza bidcak

bear dan moduan abiatzeko.

Bizkaiera dala ta, iru talde aurkitu ditue egilleak a) Batuza-leak, bizkaiera erabillera arrunta («vulgar») izatera baztertuz, eskolarako eta izkuntza erabilkera «jantzi» guztietarako batua defenditzen dabenak. B) Bizkaierearen defendatzaileak, batera batua kontrako diranak. C) Bizkaierean oinarriturik, bizkaierari erabilkera «jantzia» emongo leuskioenak («liokete», dinoe, bai-fia «le conceden», erderaz); bizkaiera batu ta «arautu» bearra ikusten dabec, eta euskara batua erabilteko be «eragozpenik ez dute». Egilleak talde onetakoak dira.

Idazkiaren rnuina emen dago: Euskereak kezkatzen bagaitu, eta euskerea azken baten euskaldunak euskeraz ez egiteagaitik galduko bada, onek arduratu bear gaitu: ezaguna jakon girotik kanpora, euskeraz egiten atrebite ez dan euskaldunak, bere umeai ikastolan batuaz egiten dautseenez, euskera sendotzean bere buruari garrantzirik ikusten ez dautson guraso orrek, erakunde prestijioso geienetan (ETB, irratia, aldizkariak, politikak) berea lez errekonozidu ezin leiken euskera entzuteak bere euskereaz lotsatu eta erderara pasaten dan orrek (16).

Eta eskoletan zer gertatzen da?

- Ikastoletako irakasle askori (bizkaieradunai) gogorregi, artifizial eta otz egiten jake ume euskaldunai batuz egitea.

- «Arrotza gertatzen da batua hizkuntza eredu bezala» ikasle euskaldunen artean, eta a'skoz gatxago.

- Etxeko eta eskolako izkuntzearen arteko tartea andiagoda, batuaz danean.

- Batuaz eskolatuak izan arren, euskera trebetasun gitxi ikusten da em euskaldunetako ikastola ume askotan (20). v

Edozein izkuntzarentzat balio daben «erizpideak» azaltzen dabez jarraian. Leenengo, umearentzat, berbetea menperatzean, artuemon zuzenak edo personalak dauken garrantzia azpimarratzen dabe (20). Baina, orrela, izkuntza-giroa aberatsa izan ezker, izkuntza diferenteak menperatzeko (etxean euskara, eskolan alemana, kalean gaztelera, adibidez) ez dagoala «oztoporik»

esateari larregi deritxot. Gaindu ezinekoa ez dala, eta guk ez claukagula beste aukerarik, konforme (euskera, mailla bi edo irutan, erdera, eta beste izkuntza modernoren bat ikasi bear dira eskolearen laguntzaz).

Egilleak badakie izkuntza minoritarioetan (mexikarrak USAn, euskaldunak uri erdaldunetan etb.) izkuntza bietank bat edo biak erdizka geratzen dirala. Jakina beti be oztopoak dirana. Bat ikastea iru ikastea baifio errezagoa da. Baina gu garanak gara, egoera orretan gagoz, eta ez dago besterik.

Beste erizpide bat: Oindino oso eredu atzerakoiak eta kaltegarriak dira nagusi edozein eskolatan: aurrak etxetik dakarren berbeteak ez dauka eskolan lekurik. Eskoleak' txartzat emoten dau kalegiroko berbeta ori, eta beste izkuntza bat (edo izkuntza mailla) irakastea da bere elburua: izkuntza garbia, jantzia, dotorea, normatiboa (22-24). Izkuntza irakaskuntzaz arduratzen dan edozein erakundek, ostera, geroago eta garrantzi geiago emoten dautso aozko berbeta biziari Baina eskolan izkuntza idatzia da egiten dana. Aozkoa irakasleak lantzen dau la bakarnk. Eta, gaifiera, eguneroko bizitzako izkuntza ez da la bapere lantzen (24).

Eskolak bai irakatsi bear dau mailla idatzia eta «normatiboa», baina ez mailla arrunta bazterturik eta ikasleari etxeko berbetearen lotsea sentiazorik. Umeak dakarren izkuntzatik asi bear da (26). Ortik asi eta aberastu, ugaritu eta zabaldu izkerabidea (26-28>

Au olan dala? Bizkaiko euskaldunak, besteak lez, euskara mailla bi ezagutzen dabez: arrunta (edo errikoa eta egunerokoa); eta, gaifiera, ondo uiertzen daben bizkaiera «jantzia» (elizan, mitinetan, bertsoiaritzan etb. cntzuten dabena). Gaur egun zerbait entzun dabe batuaz be. Baina batuaren lekua zem dan ez dakie ondo: «Idazteko balio duen euskara? Ikastoletan erakusten dutena? ETBn erabiltzen dutena? Lehendakanak eta jende inportanteak egiten duena? Zenbat eta sozio-kultura maila apalagoa, orduan eta izen haundiagoa euskara batuari (**eta** nolabait gipuzkerari). Euren hizkerabidea, bestalde, geroz eta mugatuago: ezagu-

na duen lagunarterako, herrirako, adinekoentzako (haurrak ikastolara doaz eta beste hizkuntza bat egiten bait dute)» (28). Onen ostean egilleak difioena salakuntza astuna da, baina bide batez lez azaltzen dabe, bere garrantzi larria azpimarratu bank «Berak ezagutzen dituen errejistro formal edo jantzien osagarri izan beharrean, sustituzio edo ordezkatzeara suposatzen duelako, hiztun arrunt hau nolabait ere ezjakin bihurtuz» (30). «Sustituzioa», eta beti euskaldun izan dana bere izkuntzan. «ezjakin».

Proposuruenak

1. Eskolan erriko euskerak («arruntak») bere lekua izan bear dau.

-Umeak bere buruan konfiantzea senridu dagian.

-Arrotasun on guraso eta erritarrekana zabaldu daiten

-Izkuntza bizia eta eskolatuaren artean diglosiarik sortu ez daiten

-Euskerearen egoeran, eredu arrunt eta errikoiak komunikabide dan izkuntzan dagoalako (32).

2. «Bizkaiera finkatua» («normativo»). Bizkaiko izkerabide «jantzien» bizkaiera batua izango litzake. Eredu au eskolaratzeko errazoiak

-Bertako euskara jantzia ezagutzeko.

-Euskerearen gramatika errezago ezagutzeko eta izkuntza idatzia menperatzeko.

-Bertako euskerearen eta batuaren arteko zubia izan daitekela-

ko.

-jatorriz euskaldun ez diranak erriko euskerea ikasteko egokia dalako.

-Erri ezbardinetakoak obeto alkax ulertzeko.

-joera berezkoz sentitzen da gizartean eskolaratzean eredu jantzia be irakatsi bear dak

3. «Euskara batua pasiboki gutxienez nienderatzea komemko litzateke».

-Izkuntza idatziaren lanik geienak euskara batuan direlako.

- Beste euskalkietakoekin alkar ulertzeko lagungarri izan daitekela.

Eskoletan (euskaldunen eskolak ditue gogoan) ez doaz bide onetatik. «Nahiko itsua zen bide bat hartzcak (euskera batua eta kitto) ondorio kezagarriak ekarri ditu». Alan be, egilleak, orain, ez dabe kontrako bidea bapatean artuazo bear danik esan gura, «horretarako arrazoi ugari baditugu ere» (34). Orregaitik lekuan lekuko egoerea aztertu bear da leenengo. Erriaren egoerea, gurasoen eta irakasleen entxiak, baifia batez be umeen egoerea. Erri batzuetan argiagi ikusten da irakaskuntzan bizkaieria erabilli bearra.

Baliakizun materialak. Eskolan bear diran liburuak eta beste langungarri guztiak dira emen gogoan. Bizkaieraz testo gitxi dago oindino eta bestelako baliakizunik (pelikulak, audiobisualak, diapositibak etb.) bapez

Egileen eritxiz batuango testoak erabilli leiteke bestenk ezean, eskolan bertan irakasleak egokituz. Baifia au ez da azken urtenbidea: «Bizkaieraren erabilerak cuskara sendotzen zeregin haundia baldin badu, bikaierak idatzi mailan. ere azaldu beharko du: eskola liburuetan eta bestetan» (38-40). Baifia garrantzitsuagoak dira oindifio izkuntza bizia agertzen daben ekinaldiak eta aozko baliakizunak.

Azkenez, eskolea ez da arazo guztiaren zati bat baino: «eskolan bizkaierari bere lekua ematen saiatu garen bezala, euskararen beste agerpen publiko guztietan ere bizkaiera osatu eta prestijiozkoa prest egon behar luke» (42).

Bat gatoz idazki onen idearik geienakaz Ezm leike ifiok idazkia gogorra danik esan. Bigunegia eta makala dala bai bearbada, Bizkaian jazo dana eta jazoten dana gogoan arm ezkerro. Baifia onek be, barriro, Bizlaiko euskerea oso geisorik dagoala eralcusten dau, eta gogor egitetik egilleak ez dabe osasun-bidenk itxaroteri Errazoi bardinagaitik bearbada bizkaieria defenditzeko "(eskolan eta erabillera publikoan) batuaz baliatu dira euren etxean idazleok Idazkia irakurri ta erabagiak artzeko aalmena daukenak, atsegin emonaz, apur bat irabaztearren?

Egilleak linguistika eta pedagogia errazoiak erabilli dabez Ez dira aipatu erriaren, umearen eta familiaren *eskubideak*. Eta, gero, arazoari lotuta dagoz beste gaiok be: «bide itsua» nortzuk, ze erakun-

dek artu eben, Eusko Jaurlaritzak zer egin dauan bizkaierearen aide (edo kontra, egitez), zer egiten dauan Bizkaiko Aldundiak (bere leengo eginkizuna bizkaiera salbetea izan bear leukela), Bizkaiko diruak zetan laguntzen dautson bertako euskereari Itaunok idazki onen atze-atzetik datoz, eta idazkiko «proposamenak» ezin leitezke serio artu itaunoi erantzun barik.

- Egilleak bizkaiera «batu» ta «arautu» bear danaren ardurea erakusten dabe. Egia esateko, orain arte naiko batuta egoala uste genduan Gaurko idazle batzuk aipatzeko, euskaldunak ze aide aurkitzen dau Akesolo, Onaindia, Kerexeta eta Pujanaren artean? Batasunerako bidea berez eginda egoan (konpara idazle on idazkera eta gerra aurreko idazkera garbizalea); baina azken urteotan sortu da naastea: ain zuzen be, «Baturantzako» bizkaiera borondate onagaz egin gura izan dabenak eta bizkaiera «batuagoa» nai izan dabenak Eta barriro be goitik beerako erabagiak artu dira, politika eta diru indarrez. Muinetaraino sartuta daukagu onezkero erdal mentalidadea Batasuna, erdal batasuna Eta despotismo ilustraduaren erabagiak.

Azkenez, «prestijio» idea ez litzake gure linguistikan eta pedagogian erabilli bear. Soziologia errealidadea da ori, eta errealidade orrek zapaldu ditu beti, kultura maillan, erriko jenterik apalenak. Egilleak, alderdi batetik, erriko izkera arrunt bizia zaindu gura dabe, baina bestetik ez dira guztiz askatu idea extralinguistikiko ta zapaltzailletik Erriko izkera arrunta prestijioso dala irakatsi bear dogu (alan da ta), eta orren ondoan, era zabalagoak, ulerterrezagoak, batuagoak «Prestijioa» sartzen badogu, leengo lekura jausten gara erremedio batik

Egilleak mailla pragmatikoan geratu gura izan dabe. Orregaitik edo, ez dabe aztertu *eskubidea*, bizkaiera izkuntza dan, gaurko egoeraren erruaz nortzuk erantzun bear daben. Ez da izan au euren asmua Baina bai arrito nau eurak erabilli daben arazoa sakon eta zabal aztertu dauan euskaldun baten izena bibliografian ez aurkitzeak Jose Basterretxea *El libra negro del euskara*, Bilbao 1984.

Bamro be badinot konfomie nago idazkiagaz geien baten Eta eskerrik onenaz artu dogu Izango al dau eraginik

Luis Arostegi